



HONEZKERO vs DAGOENeko

Denbora adierazteko dira bi aditzondo hauek. Batak (*dagoeneko*-k) ziurtasuna adierazten du, besteak (*honezkero*-k), berriz, ziurtasunik eza. Horrela, *Markel honezkero Zierbenan da* esaten badut, zer esaten ari naiz: nire ustez, Markelek Zierbenara iritsia izan behar duela, baina ez nago ziur, ez baitakit hala den ala ez, **ustea da**, besterik gabe.

Oso bestela, *Markel dagoeneko Zierbenan da*, esaten badut, ni **ziur naiz** herri horretara iritsia dela Markel, **harrigarri egiten bazait ere** (agian ez nuen uste hain azkar iritsiko zenik Zierbenara).

Honezkero

Honezkero formak, beraz, ziurtasunik eza adierazten du, hiztunak egiten duen suposizioa da; ez du ziurtatzen esana bete dela, ustea da. Adibidez, tankera berekoak dira esaldi hauek guztiak:

<i>Honezkero</i>	<i>Zierbenan</i>		<i>da.</i>
<i>Honezkero</i>	<i>Zierbenan</i>	<i>izango</i>	<i>da.</i>
<i>Honezkero</i>	<i>Zierbenara</i>	<i>iritsi</i>	<i>da.</i>
<i>Honezkero</i>	<i>Zierbenara</i>	<i>iritsiko</i>	<i>zen.</i>
<i>Honezkero</i>	<i>Zierbenara</i>	<i>iritsia</i>	<i>izan behar du.</i>

Uste, aieru, susmo edo hipotesia adierazten du honezkero aditzondoak esaldi horietan. Zierbenara iritsia izango dela uste du hori dioenak.

Euskaltzaindiak berak dioenez, "*bostetan ñabardura bera du aditzondoak: susmoa edo barrunda, jadanik Zierbenan delakoa. Jakin, ez daki han denik. Baina hori dioenak kontuak atera eta hori pentsatzen du*".

Iparraldean oraindik bizirik daude **dateke** / **duke** formak, eta kontestu horietan halaxe erabili ohi dituzte:

<i>Honezkero</i>	<i>Zierbenan</i>	<i>dateke.</i>
<i>Honezkero</i>	<i>Zierbenara</i>	<i>iritsi dateke.</i>

Bestalde, **honezkero** etorkizunean gertatzen den ekintza bati erreferentzia egiten zaionean ere erabiltzen da:

Berandu da eta honezkero ez du merezi joaterik.

Egitea ahaztu zait eta honezkero ez dut egingo.

Eta, besteak beste, desafio moduan ere erabili ohi da:

Honezkero ez dinat egingo!

Esaldia **ezezkoa denean**, aditza **geroaldiko aspektu markarekin** joan ohi da:

Honezkero ez da etorriko.

Honezkero ez digu deituko.

Ez dira zuzenak honelako esaldiak:

*Honezkero ez da *sinatu hitzarmena.*

*Honezkero ez du *bukatu.*

Dagoeneko

**Honezkero jaiki zara, e!*

*Nolatan ari zara zu *honezkero lanean?*

Bi kasuotan *dagoeneko* erabili behar da, bietan ere ikusitako edo **egiaztatutako** gauzak aipatzen baitira.

Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeak esandakoaren arabera, **dagoeneko** hitzaren betebeharra "*norbaiti bere begiz ikusten duenak, edo bere belarriaz entzuten duenak edo arrazoi batengatik edo besteagatik, sorrararazten dion ezustekoari edo ezohizkoari zor zaion aditzondoa da dagoeneko*". Ezusterik ez bada ez da esaten "*dagoeneko hor dago Pello*" baizik "*hor dago Pello*". Gainera, **aditzak ez du gertakizun aspektua onartzen**, "*egitate erreala, gertatua, ikusia edo jakina delako, frogatua*".

Gauza ziurra adierazten du dagoenekok adibide horretan; aditzaren ekintza bete dela jada. Dena dela, ñabardura txiki bat du dagoenekok: ezustekoari edo ezohikoari zor zaion aditzondoa da.

Beraz, ez dute zentzurik esaldiok:

**Dagoeneko esnatuko da.*

**Dagoeneko oheratuko zen.*

Lehenaldi urruneko esaldietan, **ordu(ra)ko** erabili behar da, ez *dagoeneko*:

Hura lo zegoen...ordurako.

ARIKETA

DAGOENeko/ HONEZKERO

Hutsuneak bete:

1. esnatuta? Ez nekien horren goiz jaikitzen zinenik.
2. Berandu da. iritsi da Malen.
3. Ez kezkatu, hartuko zuen hegazkina.
4. Dieta egiten aspaldi hasita dago, kilo pila argalduko zituen!
5. ehun kanta entzun ditugu eta beste berrehun gehiago entzun behar ditugu.
6. Nabari da neguan gaudela, arratsaldeko 5ak dira eta ilundu du.
7. Zazpiak dira. etxean izango da.
8. heldu da lanera, oraintxe bertan jaso dut haren mezua ordenagailuan.
9. esnatuko zen!
10. Nolatan ari zara zu lanean?
11. Bueno Aretx, zentzatuta izango zara.
12. Etorri gurekin mahaira, hasi gara bazkaltzen eta.
13. Aspaldi joana da eta etxean behar du Andonik.
14. hainbat bilera egin dugu.
15. jakingo duzuen bezala, txiste-lehiaketa antolatu dugu.
16. Bi urtez egon gara esperoan, baina etorri eta joan da.
17. Azken batean, kontzeptu ekonomiko asko kuantifikatuta daude.
18. Udaleko itzultzaileak lanean ari dira, oso goiz etorri dira gero arinago irteteko.
19. Sarrerak salgai daude
20. Prest egongo zara?

ARIKETA

DAGOENeko/ HONEZKERO

□Hutsuneak bete:

1. ...DAGOENeko..... esnatuta? Ez nekien horren goiz jaikitzen zinenik.
2. Berandu da. ...HONEZKERO..... iritsi da Malen.
3. Ez kezkatu, ...HONEZKERO..... hartuko zuen hegazkina.
4. Dieta egiten aspaldi hasita dago, ...HONEZKERO..... kilo pila argalduko zituen!
5. DAGOENeko..... ehun kanta entzun ditugu eta beste berrehun gehiago entzun behar ditugu.
6. Nabari da neguan gaudela, arratsaldeko 5ak dira etaDAGOENeko..... ilundu du.
7. Zazpiak dira.HONEZKERO..... etxean izango da.
8. ...DAGOENeko..... heldu da lanera, oraintxe bertan jaso dut haren mezua ordenagailuan.
9. HONEZKERO esnatuko zen!
10. Nolatan ari zara zu DAGOENeko lanean?
11. Bueno Aretx, ...HONEZKERO..... zentzuta izango zara.
12. Etorri gurekin mahaira, ...DAGOENeko..... hasi gara bazkaltzen eta.
13. Aspaldi joana da eta ...HONEZKERO..... etxean behar du Andonik.
14. DAGOENeko..... hainbat bilera egin dugu.
15.HONEZKERO..... jakingo duzuen bezala, txiste-lehiaketa antolatu dugu.
16. Bi urtez egon gara esperoan, baina ...DAGOENeko..... etorri eta joan da.
17. Azken batean, kontzeptu ekonomiko asko ...DAGOENeko..... kuantifikatuta daude.
18. Udaleko itzultzaileak ..DAGOENeko..... lanean ari dira, oso goiz etorri dira gero arinago irteteko.
19. Sarrerak salgai daude ...DAGOENeko.....
20. Prest egongo zara ...HONEZKERO.....?